AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

5358

EBAZPENA, 2011ko azaroaren 3koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, 2008ko enplegu publikorako eskaintzako administrarien kidegoan sartzeko hautaketa-prozesuko hautatutakoen eta esleitutako lanpostuen zerrenda osagarriak, behin betiko moduan, adiera ematen dituena eta behin betiko hautatutakoei, betekizunei eta merezimenduei buruzko agiriak aurkezteko egutegiko 20 eguneko epea ematen diena

Justizia eta Herri Administrazioko sailburuak 2010eko apirilaren 16an emandako Aginduaren bidez, oinarri orokorrak onartu ziren, 2008. urteko lan-eskaintza publikoaren ondorioz Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean karrerako funtzionario izateko deitutako hautaketaprozesuetarako.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren 2011ko urriaren 10eko ebazpenean, hautatutakoen eta esleituko diren lanpostuen behin-behineko zerrenda osagarria argitaratu zen, eta horren aurkako erreklamazioak aurkezteko epea amaitu egin da.

Aurkeztutako erreklamazioak aztertuta, epaimahaiak hautatutakoen eta esleituko diren lanpostuen behin betiko zerrenda osagarria onartu du. Deialdiaren oinarri orokorren 8.11 atala betetzeko, zerrenda hori Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak argitaratu behar du.

Deialdiaren oinarri orokorren 10. paragrafoare arabera, hautatutakoen behin betiko zerrenda argitara eman ondoren, zerrendan azaltzen direnek hautaketa-prozesuan parte hartzeko betekizunei eta baloratutako merezimenduei buruzko agiriak aurkeztu behar dituzte. Hori dela eta, behin betiko hautatutakoei egutegiko hogei eguneko epea eman behar zaie, eskatutako agiriak aurkezteko.

Guzti hori kontuan hartuta,

EBATZI DUT:

Lehenengo artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko 2008ko enplegu publikorako eskaintzako administrarien kidegoan sartzeko hautaketa-prozesuko hautatutakoen eta esleituko diren lanpostuen behin betiko zerrenda osagarria aditzera ematea. Zerrenda hori Ebazpen honen I. eranskinean azaltzen da.

Bigarren artikulua.– Behin betiko hautatutakoei, egutegiko hogei eguneko epea ematea, 2011ko azaroaren 8tik 28ra, biak barne, hurrengo lerroaldetan aipatuko diren agiriak aurkezteko.

Agiriak, Funtzio Publikoko zuzendaritzan –Eusko Jaurlaritzako Vitoria-Gasteizko egoitzan (Donostia-San Sebastián, 1 PK: 01010)– aurkeztu beharko dira.

Funtzio Publikoko zuzendaritzan eskatutako agiriak aurkezteko, behin betiko hautatutakoen bertaratze ordenatua izateko, aldez aurretik data eskatu beharko da, 945 01 63 82 telefono zenbakian, eta, adostutako datan, agiriak aurkeztu.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Langileen Erregistroan dauden agiriak ez dira aurkeztu behar.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

a) NANaren fotokopia konpultsatua.

b) Atzerriko izangaiek nazionalitateari buruzko betekizunak betetzen dituztela egiaztatzen duen agiriak. Izangai horiek jakinarazpen bat jasoko dute administraziotik, eta hor adieraziko zaie zein agiri derrigorrez ekarri beharko dituzten beren egoera kontuan hartuta.

c) Oinarri espezifikoetan kidegoan sartzeko eskatzen den tituluaren fotokopia konpultsatua. Titulazioak atzerrikoak badira, haien homologazioaren egiaztagiriaren fotokopia konpultsatua aurkeztu beharko da.

d) Zinpeko aitorpena edo hitzematea, honako eduki hauek jasota uzten dituena:

● Ez izatea gaixotasun edo akats fisikorik dagozkion eginkizunak betetzea galaraziko dionik.

● Ez izatea eginkizun publikoak betetzeko gaitasunik gabetuta.

● Ez izatea inongo herri-administraziotako zerbitzutik diziplina-espediente bidez bereizita edo kanporatuta.

● Ez izatea Herri Administrazioetan jarduten duten langileen bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean aurreikusitako ezgaitasun eta bateraezintasunen legezko inolako kausatan sartuta.

Aurreko lerroaldean aipatutako aitorpena, Ebazpen honen II eranskinean dagoen inprimakia betez egingo da.

Espainiako herritartasuna ez duten izangaiek, beraien estatuko funtzio publikoan jardutea galarazten dien diziplinazko zigorrik edo zigor penalik ez dutela adierazten duen zinpeko aitorpena edo hitzematea aurkeztu beharko dute.

e) Legez aintzatetsitako ezintasunaren ziurtagiria, ezinduentzat gordetako modalitatean parte hartu bada.

f) Lehiaketa-aldian titulazioen eta euskara ez diren hizkuntzen inguruan baloratutako merezimenduei buruzko jatorrizko agiriak edo horien fotokopia konpultsatua, beti ere lehen ez badira egiaztatu jatorrizko agirien edo fotokopia konpultsatuaren bidez.

g) Esleitutako lanpostuaren baldintza espezifikoak betetzen direla egiaztatzen duen jatorrizko agiriak edo horien fotokopia konpultsatua; beti ere esleitutako lanpostuak halako baldintzak dauzkan kasuetan besterik ez.

h) Izango den lanpostuaren jabetzari buruzko idazkia. Idazki hori ebazpen honen III eranskinean dagoen inprimakia betez egingo da.

i) Aurkezten diren agiriak, hurrenez hurren, jasotzen dituen agiria. Ebazpen honen IV eranskinean dagoen inprimakia betez egingo da idazki hori.

Hirugarren artikulua.– Aurreko artikuluari jarraituz aurkeztutako agiriek jatorrizkoak edo kopia konpultsatuak izan beharko dute. Fotokopiek, baliozkoak izateko, datu hauek izan beharko dituzte: data eta konpultsa egin duenaren izen-abizenak, NAN eta izenpe irakurgarria.

Agirien konpultsa Funtzio Publikoko zuzendaritzan eskatzerik badago, beti ere konpultsatu nahi duen fotokopiaren jatorrizko agiria aurkezten bada, agiri biak alderatzeko.

Laugarren artikulua.– Aurreko agiri guztiak aurkeztu ezina behar bezala arrazoitzen bada, izangaiak zuzenbidean onartzen den edozein frogabide erabili ahal izango du deialdiko baldintza guztiak betetzen dituela egiaztatzeko.

Bosgarren artikulua.– Adierazitako epearen barruan, ezinbesteko kasuetan izan ezik, deialdiaren oinarrietan eskatutako agiriak aurkezten ez dituztenak, edo agiriak aztertuta ikusten bada deialdiaren oinarri orokorren hirugarren atalean zehaztutako baldintzetako bat ez dutela betetzen, edo dagozkien eginkizunak betetzeko eskatzen den gaitasun fisiko nahiz psikikorik ez dutela, ezin izango dira izendatu. Era horretako kasuetan, bertan behera geratuko dira aurretik egindako urrats guztiak, eta horretaz gain, litekeena da erantzukizunik izatea beren gain eskabidean faltsukeria egiteagatik.

Seigarren artikulua.– 2011ko azaroaren 30ean argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko iragarki-oholetan, eta interneteko www.euskadi.net/ope helbidean, karrerako funtzionario izateko izendapenak egingo dituen Justizia eta Herri Administrazioko sailburuaren Agindua, hain zuzen oinarrietan eta aurreko artikuluetan ezarritakoa bete duten izangai hautatuen aldeko izendapenak.

Zazpigarren artikulua.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari. Errekurtsoa jartzeko epea hilabetekoa izango da Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita, hala ezartzen baita Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 114. artikuluan eta ondokoetan. Errekurtsoari ez bazaio ebazpen adierazirik ematen, errekurtsoa ezetsitzat joko da.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko azaroaren 3a.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria,
MARIA ENCARNACIÓN ECHAZARRA HUGUET.

I. ERANSKINA

2008ko enplegu publikorako eskaintzako administrarien kidegoan sartzeko hautaketa prozesuko hautatutakoen eta esleitutako lanpostuen behin betiko zerrenda osagarria

NAN	Izen abizenak			Lanpostua	Dotazioa	Hizkuntza eskakizuna	Data
16270173	De Paz	Alonso	Maria Ángeles	520040	248	PL2	
15390716	Zuazua	Calle	Iraide	520040	182	PL2	
18601180	Mendia	Rodriguez	Elvira	520040	229	PL2	1992-10-31
14261055	Ojanguren	Echevarria	Eider	520040	500	PL2	2008-10-31
18595457	Porras	Ogueta	Elisa	520040	496	PL2	2008-03-31

II. ERANSKINA / *ANEXO II*

FUNTZIO PUBLIKOAK BETETZEKO GAITASUNAREN INGURUKO ZIN EGIN EDO HITZA EMATEKO ADIERAZPENA /

DECLARACIÓN JURADA O PROMESA RELATIVA A LA CAPACIDAD PARA EL EJERCICIO DE FUNCIONES PÚBLICAS

……. ..……..……jaun/andreak, …….... NAN zenbakia duena.

D./Dña…… ……, con DNI n.º ……...

Zin egin edo hitza ematen ditut honako adierazpen hauek:

Declaro bajo juramento o prometo:

- Ez dudala gaixotasun edo akats fisikorik dagozkion eginkizunak betetzea galaraziko dionik.
- *No padecer enfermedad o defecto físico que imposibilite para el desempeño de las correspondientes funciones.*
- Ez nagoela eginkizun publikoak betetzeko gaitasunik gabetuta.
- *No hallarme inhabilitado/a para el ejercicio de funciones públicas.*
- Ez nagoela inongo herri-administraziotako zerbitzutik diziplina-espediente bidez bereizita.
- *No haber sido separado/a o despedido/a mediante expediente disciplinario del servicio de cualquiera de las Administraciones Públicas.*
- Ez nagoela Herri Administrazioetan jarduten duten langileen bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean aurreikusitako ezgaitasun eta bateraezintasunen legezko inolako kausatan sartuta.
- *No hallarme incurso/a en alguna de las causas legales de incapacidad e incompatibilidad previstas en la Ley 53/1984, de 26 de diciembre, de incompatibilidades del personal al servicio de las Administraciones Públicas.*
- (Espainiako herritartasuna ez duten izangaientzako besterik ez) ez dudala nere gain norberaren estatuko funtzio publikoan jardutea galarazten didan diziplinazko zigorrik edo zigor penalik.
- *(Únicamente para aspirantes que no posean la nacionalidad española) no estar sometidos/as a sanción disciplinaria o condena penal que impida en mi Estado el acceso a la función pública.*

Halaber, gozamen-eskubideegatikako edo herri edo nahitaezko Segurantzaren edozein jaurpideregatikako erretirorik edo ume-zurtzsaririk jasotzen ez duela adieratzen du.

Asimismo, declara que no se encuentra percibiendo pensión de jubilación, retiro u orfandad por derechos pasivos o por cualquier régimen de Seguridad Social pública y obligatoria.

Vitoria-Gasteiz, 2011……..ren……a
Vitoria-Gasteiz,……de……..de 2011

Dagokiona
El/la Interesado/a

FUNTZIO PUBLIKOAREN ZUZENDARIA / *DIRECTORA DE FUNCIÓN PÚBLICA*

III. ERANSKINA / *ANEXO III*

2008KO LANPOSTUAREN JABETZA. LANEAN HASTEKO AUKERAK

TOMA DE POSESIÓN OPE-2008. OPCIONES DE INCORPORACIÓN

Izena/*Nombre:*	
NAN/*DNI*:	
Honako kidego honetan sartzeko hautaketa-prozesuan hautatua izan naiz: *Seleccionada/o en el proceso selectivo para ingreso en el cuerpo:*	

Honako eskaera hau egingo dudala Adierazten dut (hala dagokionean):
Manifiesto que realizaré la siguiente solicitud (si procede):

- Esleitu izan zaidan lanpostura joango naizela.
- Edozein Administrazio Publikotako beste kidego edo eskala batean jarduneko zerbitzuan egoteagatik, borondatezko eszedentzia.
- Norberaren kontuetarako borondatezko eszedentzia.
- Zerbitzu bereziak.
- Seme-alabak zaintzeko eszedentzia
- Hilabete bat baino gehiagoko baimena edo/eta lizentzia.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean salbues-penezko zerbitzu eginkizunetan, ari naizen lanpostuan betetzea.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean zerbitzu eginkizunetan, ari naizen lanpostuan geratzea.
- Esleitu izan zaidan lanpostuari uko egiten diodala.

- *Incorporarme al puesto que me ha sido adjudicado.*
- *Excedencia voluntaria por estar prestando servicio en otro cuerpo o en otra administración.*
- *Excedencia voluntaria por interés particular.*
- *Servicios especiales.*
- *Excedencia por cuidado de hijos.*
- *Licencia y/o permiso superiores a un mes.*
- *Ocupar, en comisión de servicios excepcional, en el puesto que estoy desempeñando en la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco.*
- *Mantenerme en comisión de servicios en el puesto que estoy desempeñando en la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco.*
- *Renunciaré al puesto que me ha sido adjudicado.*

Vitoria-Gasteiz, 2011ko ……..…… ren …….a
Vitoria-Gasteiz, a …… de …… de 2011

Izpa./*Firma*

IV. ERANSKINA / *ANEXO IV*

AURKEZTUTAKO DOKUMENTUAK

DOCUMENTOS PRESENTADOS

Andre hori:

Justizia eta Herri Administrazio sailburuaren 2010eko apirilaren 16ko Aginduaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko 2008ko enplegu publikorako eskaintzako oinarri orokorren 10. atalaren arabera, honekin batera hauek doazkizu jarraian zerrendaturik datozen agiriak:

Ilma. Sra.:

De acuerdo con el apartado 10 de las bases generales de la oferta pública de empleo de la Administración General de la Comunidad Autónoma para el año 2008, aprobadas mediante la Orden de 16 de abril de 2010 de la Consejera de Justicia y Administración Pública, remito documentación que a continuación se relaciona.

1.-

2.-

3.-

4.-

5.-

6.-

7.-

8.-

9.-

10.-

11.-

12.-

Vitoria-Gasteiz, 2011ko..... aren.....a.
Vitoria-Gasteiz, …….de ……..de 2011.

Izpa./*Fdo.*: ……

FUNTZIO PUBLIKOAREN ZUZENDARIA / *DIRECTORA DE FUNCIÓN PÚBLICA*